

Ez al dugu merezi atsedenaldi bat?

Gutun honen sinatzaileok ELA sindikatuko ordezkariak gara, eta Elikadura Merkataritza sektoreko langileak. Lerro gutxitan laburbildu nahi izan ditugu gure bizipenak, salbuespenezko egoera honetan izandakoak, gure lankide gehienak hausnarketa honekin bat etorriko direlakoan.

Elikadura Merkataritzako enpresetako langileok oso egoera latzean ari izan gara azken egun hauetan, ahalegin handiak egin behar izan ditugu, eta uneoro, gure lanaren ezaugarriak direla-eta, kutsatuak izateko arriskuan. Hiru aste daramagu horrela, eta inork ez daki noiz arte luzatuko den larrialdi-egoera hau.

Hasiera-hasieratik segurtasun-neurrien eske ibili behar izan gara, gu babesteko, eta gure bezeroak babesteko. Eta bitartean lanean jarraitu behar izan dugu, gogor gainera.

Krisi honek denen agerian zerbait utzi badu, zera izan da: funtsezko sektoreetako anitz ez daude behar bezala balioetsita, ez gizartearen aldetik, ezta lanaren aldetik ere. Sektore horien artean aipatu behar dira zainketak, garbikuntza... eta gurea ere bai. Sektore horiek guztiak emakumeen eta prekarietatearen esparruak dira, eta egun batetik hurrengora mundu guztia konturatu da ezinbertzeko sektoreak direla. Espero dezagun, normaltasuna nagusitu eta gero, hau dena ez ahanzte, eta gure lan-baldintzak duintzeko benetako urratsak egitea.

Balkoietako txaloak guretako ez badira ere, egun hauetan dendetara datozen erosle anitzek beren eskerrona agertzen digute. Enpresek hitz ederrak, eta baita eskerrak ere, ematen dizkigute gure ahaleginengatik. Eta, zer erranik ez, guk estimatzen ditugu adierazpen horiek guztiak; baina erranekin batera eginak ere eskatzen ditugu gutun honen bidez.

Gure ohiko egutegiaren arabera astean sei egunetan lan egiten dugu, urtean 275 egunetan, eta horiez landa jai-egun batzuetan ere bai, enpresek horretan duten temagatik, beti ere gure atsedenen eta kontziliazioaren kaltetan. Guk urtean egun gutxiagotan lan egiteko eskatzen jarraituko dugu, eta baita jai-egunetan denok jai hartzeko ere. Dendak asteleheneko 09:00etatik larunbateko 22:00ak arte daude irekita. Ez da beharrezkoa egun gehiagotan irekitzea. Kontrakoa dioenak arazoren bat dauka.

Dena dela, azken hiru asteotan bizi izan duguna larria izan da: arriskuan lan egiten dugu, guretako eta gure etxekoendako, urduri gaude, berebiziko ahaleginak egiten... eta orain, inoiz baino gehiago, atsedenaldi bat behar dugu.

Gure enpresei plazaratzen diogun eskaera oso zehatza da: Ostegun Santuan dendak ez irekitzea. Hitz ederren ondoren, egintzak etorri behar dira. Ez dute gutxiago salduko, ez dira etekinak murriztuko. Ongi dago bixkarrekoak ematea, baina gero zerbait gehiago egin behar da. Jai-egunetan irekitzeak ez badu inoiz zentzu handirik, herritarrak itxialdian daudenean are zentzu gutxiago du, ez da beharrezkoa, eta ez du ez buru, ez hankarik. Enpresek erakutsi behar dute, hitz ederretatik landa, ez dutela jartzen negozioa beren langileen osasunaren aitzinetik.

#GeratuEtxean leloa errepikatzen digute, baina honela egiazkoagoa litzateke: "Geratu etxean, ez baduzu lan egiten supermerkatu batean, zure enpresak Ostegun Santuan ere ireki nahi duelako, inolako beharrik ez badago ere".

Jendeari eskatzen diogu ez etortzeko erostera ez jai-egunetan, ezta datorren Ostegun Santuan ere. Elkartasunezko keinu hori eskatzen diogu. Eta Nafarroako Gobernuari haren aldetik zerbait jartzeko eskatzen diogu, eta ondorioz supermerkatuak ez irekitzeko eskaera enpresei igor diezaiela.

Bukatu baino lehen, gure lankide guztiei, funtsezko jardueretako langile guztiei, eta egunero arriskuan lan egin behar dutenei gure elkartasunezko besarkada ematen diegu hemendik bihotzez.

Elikadura Merkataritzako ELA-ordezkarik hauek sinatu dute: Ana Gastón Sánchez, Carrefourko langilea; Susana Ardanaz Azanza, BMko langilea; Rebeca De Carlos De Los Reyes, Mercadonako langilea; Mary Luz Ayesa López, LIDLgo langilea; Arantxa Redin Iglesias, Leclerc-ko langilea; Leire Goñi Barber, Ranstad-eko langilea; Mertxe Maestu Montoya, Clarelgo langilea; Cristina Arias Becerra, Equipafasa-Eroskiko langilea; eta Ainhoa Sanchez Carracedo, DIAko langilea.